

IGERILARIAREN GIDA

GZ Gazteak

2026ko uztailaren 19an, 10:00etan eta 10:15ean

Distantzia: 400 m (2014-2015) eta 800 m (2012-2013)

Kopurua: 200 igerilari

PROGRAMA

Ostirala, larunbata eta igandea, uztailak 17, 18 eta 19

Igerilariaren poltsa jasotzea



Ostirala 17	12:00-20:00
Larunbata 18	8:00-20:00
Igandea 19	7:30-9:00*

Derrigorrezkoa izango da NANA eta izen-ematearen baieztapena aurkeztea poltsa eta dortsala jasotzeko. Poltsa eta dortsala ezin badira pertsonalki jaso, hirugarren pertsona batek jaso ahal izango ditu, NANaren fotokopia eta izena eman duen pertsonaren izen-ematearen baieztapena aurkeztuta.

*Izena ematerakoan zerbitzu hori kontratatu duten pertsonentzat soilik.



Duke Enea, Zarautz

Igandea, uztailak 19

Kontsigna: utzi/jaso poltsa



Duke Enea, Zarautz

Igerilariaren poltsan aurkituko duzuen zinta itsaskorra itsatsi beharko duzue kontsignan utziko duzuen motxilan. Zinta horrek dortsal zenbakia du, eta identifikazioa erraztuko du. Hori baliagarria izango da identifikatzeko, eta probaren ondoren errazago itzultzeko.

ORDUTEGIA

Zarautzen, Duke Enean:

- Utzi: 09:00 - 09:45
- Jaso: 10:30 - 14:30

Ordutegitik kanpo entregatutako poltsak ez dira onartuko. Poltsetan balio handiko edo hauskorrak diren objekturik ez sartzea gomendatzen da. Antolatzaileek ez dute beren gain hartuko objektu horiek izan ditzaketen galeren edo kalteen erantzukizuna. Era berean, parte-hartzaileak bere poltsa manipulatzea baimentzen du.

Dorsal zenbakia markatzea



Duke Enea, Zarautz

Nahitaezkoa izango da dortsalaren zenbakia sorbalda bakoitzean markatzea. Markatzeko gunea Duke Enean izango da, kontsignan.

Probaren hasiera



400m	10:00 - Zarauzko portua
800m	10:15 - Zarauzko hondartza

Zeharkaldiak bi ibilbide izango ditu:

- 400 metrokoa (2014-2015): portutik Munoaraino. Behin portutik irtenda, buia bat eskuinetara utzi eta Munoarantz abiatu beharko dute.
- 800 metro (2012-2013): hondartzan, itsas- ertzetik irtenda istaso zabalera abiatutik, bi buia utziko dituzte ezkerretara. Porturantz begira jarri, eta, gero, Munoarantz egingo dute, han amaitzeko.

Sari banaketa



10:30 - Duke Enea, Zarautz

400 metro (2014-2015):


- Parte hartzaile guztiek domina jasoko dute.
- Lehen 3 pertsonak sailkapen absolutuan, mutil zein neskek.
- Zarauzko (edo Zarautz Balea Igeriketa klubeko) lehen pertsona bat sailkapen absolutuan, mutil zein neska.

800 metro (2012-2013):

- Parte hartzaile guztiek domina jasoko dute.
- Lehen 3 pertsonak sailkapen absolutuan, mutil zein neskek.
- Zarauzko (edo Zarautz Balea Igeriketa klubeko) lehen pertsona bat sailkapen absolutuan, mutil zein neska.

IBILBIDEAK





lekuona
Rethinking Industry



ARAUDIA




Nahitaezkoa da probako parte-hartzaile bakoitzak araudia irakurtzea eta klausula bakoitza betetzea, proban parte hartu ahal izateko. Araudia travesiagetariazarautz.com webgunean dago ikusgai.

ARAUDIA IRAKURRI (PDF)

Asteburuko proben inguruko oharra, azken berriak, argazkiak eta bestelako edukiak ezagutzeko, jarraitu gure sare sozialak.

 **@travesiagz**

 **@TravesiaGetariaZarautzZeharkaldia**



Babesle nagusiak



Babesleak



Babesle Instituzionalak



Laguntzaileak

